


# 2010ko Udako Txostena

Bake-prozesuaren azterketa.




Jarrai dezagun etorkizuneko  
aukerak irekitzen

# 2010eko Udako Txostena

---

Aurkezpena.	2
Bakeranzko prozesuaren egoera.	4
Egindako ekarpen batzuk.	9
Bakeranzko prozesuaren egoeraren azterketa.	10
Lokarriren gomendio eta konpromisoak bake prozesu berri bat bultzatzeko.	11



# Aurkezpena

Hau bake-prozesuaren Behatoki Sozialaren seigarren Txostena da, guztiak ere Lokarrik aurkeztutakoak. Oraingo hau 2010eko udari dagokion Txostena da. Gogoratuko dugu Behatoki Sozialak, beste behin ere, bitarteko bat izan nahi duela interesa duten herritar guztiek bakeari eta bizikidetzari buruz zer iritzia duten adierazteko. Era berean, denon artean, ideia eta proposamen eraikigarri berriak sortzea da helburua, aukerak baliatzeko eta oztopoak gainditzeko.

Txosten honek 2010eko udan dagoen egoera aztertu du, eta landua izan da aukera-agertoki berriarekin lotura duten gertakariak markaturiko testuinguruan. Hilabeteotan gertaturiko eta txosten honetan iruzkindutako gertaeren artean, ETAk plazaratutako bi komunikatuak daude. Komunikatuotan, ETAk eraso ekintza armaturik ez egiteko erabakia jakinarazteaz gain, Bruselako Adierazpena sinatu zutenekin bestelako urratsak aztertzeke prest zegoela agertu zuen. Beste gertakari batzuk ere izan dira, behin Txosten hau lantzeko balio izan duen galdetegia erantzuteko epea bukatu ondoren; esate baterako, Gernikako Adierazpena, irailak 25ekoa, eta ETako bi kideri egindako elkarrizketa, Gara egunkarian irailaren 26an argitaratutakoa.

Txosten hau egiterakoan, Lokarrik aztertu egin ditu galdetegia emandako erantzunak. Azkenean, galdetegia 984 lagunek erantzun diote eta, guztira, hamar galdera izan dira. Azkena gehitu zitzaion, ETaren bigarren komunikatuaren berri izan ondoren. Galdetegian bi galdera mota daude: galdera finkoak, Behatokiak 2009ko uztailean lehen Txostena argitaratu zuenetik hona galdetegi guztietan ageri direnak, eta bestelako galderak, berariazkoagoak, eta Txostenak hartzen duen denboraldian gertaturiko gertaerei dagozkienak, eta bakea lortzeari

nahiz bizikidetza hobetzeari lotuta daudenak. Galdera finkoek aukera ematen digute jakiteko zer-nolako bilakaera duen galdetegiari erantzun dioten pertsonen bakeranzko prozesuaren egoeraz duten pertzepzioak, bai eta unean uneko aukerez eta oztopoez duten iritzia ere. Gainerako galderek, berriz, herritarrek azken gertaeren inguruan dituzten ekarpen eta jarrerak biltzeko bidea ematen digute.

Logistika kontuak direla eta, denboraldi honetan ez da Tokiko Behatokitik egin, baina berriz ere egingen dira hurrengo txostenari begira. 2010eko udari dagokion Txosten hau hiru atal handiz osatua dago:

1. Bakeranzko prozesuaren egoera. Galdetegiak emandako emaitzen azterketa.
2. Bakeranzko prozesuaren egoeraren azterketa
3. Lokarriren gomendioak eta konpromisoak beste bake-prozesu bat bultzatzeko

2010eko udari dagokion Txosten honen edukiak jendaurrean zabalduko ditugu, eta Txostena bera alderdi politikoei, erakundeei eta gizarte-eragileei helaraziko zaie, bake-prozesuaren egungo egoerari buruz egindako balioespenak eta ekarpenak jakiteko, eta era berean, aukera-garai hau baliatzeko proposatu diren ekintzen berri izateko.

# Bakeranzko prozesuaren egoera


## Galdetegiak emandako emaitzen azterketa

### 1. Zer iritzi duzu bakerako prozesuaren egoeraz?

Bake-prozesuaren egoerari buruzko pertzepzioa gero eta positiboagoa da. Joan den udaberrian, batez besteko nota lehen aldiz 5etik gora baitzegoen, eta oraingo honetan 6,1eraino igo da. Horrek are garrantzi handiagoa dauka, baldin eta 2009ko udan lorturiko emaitzekin alderatzen bada, orduko hartan batez besteko nota 2,8 izan baitzen. Data horretatik aurrera, joerak arian-arian egin du gora.

Datuak atalkatuta, nabarmendu behar da galdera honi erantzun dioten lagunen erdiek 6ko edo 7ko kalifikazioa eman diotela bakeranzko prozesuaren egoerari. Bestalde, % 15entzat bakarrik da txarra egoera (1etik 4ra bitarteko puntuazioa). Ehuneko hori % 37 zen 2010eko Udaberriko txostenean; % 43, neguan, eta % 88, 2009ko udan. Igoerarik handiena izan duen datua berriz ere ona/oso ona balorazioa izan da (7tik 10era bitarteko puntuazioa), eta joan den udaberrian izaniko emaitzak bikoiztu dira: orduko % 22tik oraingo % 44ra. 2009ko udaberrian, portzentajea % 4 zen.

Bakeranzko pauso batzuk ematen ari direla edo itxaropenerako arrazoirik egon badagoela deritzotenen artean, % 85ek batez ere aurrerapausotzat nabarmendu dute Ezker Abertzalearen estrategia eta soilik bitarteko politikoak eta demokratikoak erabiltzearen aldeko apustua. ETAREN komunikatuei dagokienez, oro har ontzat jotzen dira baina jendearen iritziz ez dira nahikoak; aldi berean azpimarratu behar dira komunikatu horiek aurrerapauso laburrak



Zer iritzi duzu bakerako prozeuaren egoeraz?

baina garrantzitsuak direla dioten iruzkinak. Beste arrazoi nabarmen bat nazioarteko eragileek bakeranzko prozesuan inplikaturia egoteari dagokio.

% 15ek txartat jo du egoera (1etik 4ra bitarteko puntuazioa) eta haien arrazoi nagusia da ETAren komunikatuekiko eta Ezker Abertzalearen mugimenduekiko konfiantzarik eta sinesgarritasunik eza. Beste arrazoi bat da Gobernuaren erantzun negatiboa eta estatuko alderdiek dituzten mesfidantzak.

## 2. Duela urte bat baino aukera gehiago dago bakea lortzeko?

2009ko udako txostenean, % 84k adierazi zuten aukera gutxiago zegoela bakea lortzeko; orain, aldiz, % 2k baizik ez du iritzi hori. Aitzitik, 2010eko udako txostenak dakartzen datuen arabera, % 78ren iritzi, orain aukera gehiago dago duela urtebete baino bakea lortzeko; iritzi horrek nabarmen egin du gora aurreko txostenetatik hona: % 8, 2009ko udan; % 33, 2009ko udazkenean; % 50, 2009ko neguan, eta % 66, 2010eko udaberrian. % 16k berdin aukeraren alde egin du; hau da, orain dela urte bateko aukera berberak daudela. Azkenik, ez daki/ez du erantzuten sailekoen portzentajea % 4raino jaitsi da (% 13, 2009ko neguan; % 10, 2010eko udaberrian).

Orain duela urte bat baino aukera gehiago dagoela irizten dioten artean, lau arrazoi argudiatzen dira nagusiki: Bruselako Adierazpenak dakarren nazioarteko inplikazioa; Ezker Abertzaleak soil-soilik bitarteko politiko, baketsu eta demokratikoen alde egindako apustua barne-gogoetaren ondorioa dela irizten diotenak; ETAk emandako pausoak, eta azkenik, hiru elementu horiek Gobernuan keinuren bat eragiten laguntzeko itzaropena. Oro har, pauso horiek ontzat jotzen badira ere, behin betikoak izateko desioa adierazten da.

Esanguratsuak dira ETA pausoak ematera bultzatu duten arrazoi inguruko gogoetak: batzuen ustez, pauso horiek eman izana haren ahuldadeari zor zaio, bai eta barnealdean gizarte babesa ez izateari ere; beste batzuen ustez, ordea, pauso horien bidez, ETAk bere egin du Ezker Abertzalearen apustua, eta gaur egun zaila da indarkeria justifikatzea. Batzuk eta besteak bat datoz esaterakoan atentaturik ez izateak arindu egiten duela indarkeriak dakarren tentsioa.

Orain dela urte bat baino aukera gutxiago dagoela dioten iritzi, ETA eta Gobernu ez daude hitz egiteko prest, eta aurreko treguetako eskarmentuak eraginda, egoerari mesfidantzaz begiratzen diote.

Aukerak orain dela urtebeteko berberak direla diotenek gauza bakar bat jo dute ontzat: atentaturik ez izatea. Gainerakoan, mesfidantza handia agertzen dute ETAk nahiz Ezker Abertzaleak emandako pausoei buruz, eta nabarmentzen dute zer egin duten eragileen artean inork ere ez duela elkarriketarako borondaterik.

## 3. Zure ustez, betetzen al dira bake-prozesu berri baterako baldintzak?

Aurreko txostenak erantzunen balorazio gero eta positiboagoa agertzen bazuen, oraingo honetan balorazio positiboak gora egin du nabarmen: sei hilabeteetan, ia bikoiztu egin da bake-prozesu berri baterako baldintzak betetzen direla dioten kopurua. % 62k dio bake-prozesu berri baterako baldintzak betetzen direla; aurreko txostenean, aldiz, % 50ek esan zuen hori, eta aurrekoetan, iritzi hori zutenak ez ziren inoiz % 35 baino gehiago izan. Era berean, "ez" erantzun dutenak % 16 dira (aurrekoan, % 26), eta beste batzuk eta ez daki/ez du erantzuten erantzundakoak % 14 eta % 8 dira, hurrenez hurren.

Bake-prozesu berri baterako baldintzak betetzen direla irizten diotenek hiru arrazoi hauek aipatu dituzte: ETAk iragarritako pausoak, Ezker Abertzaleak azken hilabeteotan emandakoak, eta nazioarteak duen interesa eta emandako laguntza. Batzuek diote horrek Gobernu eta alde guztiak behartu ditzakeela aurrerapauso eraikigarriak ematera. Era berean, argudiatu da beti betetzen direla bake-prozesu baterako baldintzak, egoera edozein izanda ere. Hori guztiorri gehitu behar zaio erantzun gehienei darien zuhurtasun handia, jendearen iritzi oraindik ere pauso asko emateko baitaude.


Bake-prozesu berri baterako baldintzak betetzen ez direla uste dutenek adierazi dute ETAk ez duela bere jarduera behin betiko utzi eta/edo Gobernuak eta alderdi batzuek jarrera immobilista dutela. Aukera berria irekitzeko pauso berriak egon badaudela aitortuta ere, batzuek uste dute oraindik ere beharrezkoa dela eragile guztiek beren ekarpena egitea. Era berean, aipatu da bai mesfidantza bai aurreko porrotek duten pisua.

Azkenik, ez daki/ez du erantzuten erantzundakoek nahasmendua adierazi dute, zalantzak, eta ETArekin, Gobernuaren eta alderdi politikoen jarreraren gaineko konfiantzarik eza, edota iruditzen zaie behar adina argibiderik ez dutela galdera honi erantzuteko.

#### 4. Bakerako aukera baten aurrean gaudela uste al duzu?

Jendearen % 69k baiezko erantzuna eman du, baliatu beharra dagoen aro berri bat ireki dela argudiatuta. % 19k esan du, garbi ez izanik ere, aurrerapauso gehiago behar direla, eta erantzunen % 5ek uste dute ezer ere ez dela aldatuko ETAk behin betiko amaiera erabaki artean.

Beste batzuk aukeran emandako arrazoien artean (gainerako % 7), gehienetan aipatzen da borondate politikorik ezak bake-prozesu berri baterako aukerak itxi egiten dituela.



#### Bakerako aukera baten aurrean gaudela uste al duzu?

## 5. Zer iritzi duzu irailaren 5ean ezagutzera emandako ETAREN komunikatuaz, zeinetan eraso ekintza armaturik ez egiteko erabakia azaltzen duen?

Lau lagunetatik hiruk aurrerapausotzat jo dute irailaren 5eko komunikatua. Datuak xehekatuta, % 39k uste du Ezker Abertzalearen estrategia eta soilik bitarteko baketsuak eta demokratikoak erabiltzearen aldeko apustua sendotzen dituela; % 26ren iritziz, aurrerapausoa da, ETAk une batez indarkeriaren oztopoa bazterten duelako; eta erantzunen % 11tan esaten da urrats positiboa dela, ETA konponbide baten bilaketan inplikatu delako.

Kontrako iritziak bi bloketan argudiatuta ageri dira: erantzuna emandakoen % 12k uste du komunikatua ez dela nahikoa, indarkeriaren amaiera iragartzen ez duelako, eta % 3ren iritziz, komunikatuak ez dakar aurrerapausorik, ETAk jadanik sinesgarritasunik ez duelako.

% 9k beste batzuk aukeraren alde egin du, eta komunikatu horren garrantzia azpimarratzen badute ere, haien iritziz ez da nahikoa.

## 6. Nola sentitzen zara komunikatuaren berri izan eta gero?

Sentimendu positiboek erantzunen % 52 egiten dute: Itxaropentsu daudela diotenak % 41 dira eta, ilusionaturik daudenak, % 11. Hamar lagunetatik hiruk esan dute tentuz daudela ETAREN komunikatuaren aurrean; % 10, aldiz, eszeptiko dago; % 4, gogaituta; % 2, desengainatuta, eta % 2 ere, axolagabe.

## 7. Zure iritzian, zer egin behar du Gobernu Zentralak komunikatu honen aurrean?

Erantzunetan, bi ideia ageri dira parez pare. % 41ek dio Gobernuak zuhur jokatu behar duela eta elkarriketa bat abiatu behar duela indar politiko guztiekin agertoki berri bat baloratzeko; aldiz, % 39k uste du Ezker Abertzalea legeztatuz eta presoak hurbilduz erantzun behar duela.

%7k, bere aldetik, uste du Gobernuak ez duela ezer egin behar, ETAREN indarkeriaren eteteak atzerabueltarik izango ez duela egiaztatu bitartean. Beste batzuk aukeran erabilitako argudioen artean (% 13), hainbat ideia errepikatzen dira: alderdi askotako lan batzorde bat sortzea; nazioartean laguntza eskatzea, eta Ezker Abertzalea legeztatzea eta presoak hurbiltzea, ez komunikatuei eman beharreko erantzun gisa, baizik eta giza eskubideak eta eskubide politikoak errespetatzeko oinarrizko baldintza gisa.

## 8. Egungo eszenatokiaren aurrean, inplikatzeko prest egongo zinateke?

Aurreko aldietako porrota ez errepikatzeko, mobilizatzeko prest daudela diotenen portzentajeak zertxobait egin du behera, udaberriko Txostenaren aldean: orduko % 53tik oraingo % 48ra. Eta gauza bera ageri da, gertatzen den guztiaren berri behintzat jaso nahiko luketen pertsonen buruz: portzentajea % 29 da; udaberrikoan baino bi puntu gutxiago.

% 10ek dio beharbada inplikatuko litzatekeela, baina argi dute ongi irtetearen erantzukizuna ez dela euskal gizartearena; ETARENA, Gobernuarena eta alderdiena baizik. Azkenik, % 3k erantzun du ez dagoela inplikatzeko prest, jadanik desengainu gehiegi jasan dituelako.

## 9. Zer egin beharko luke Lokarri bezalako gizarte mugimendu batek une honetan?

Galdera horri erantzunez jasotako ekarpen gehienek nabarmentzen dute Lokarriren lana orain artean zuzena izan dela; horrenbestez, ildo berean lanean jarraitu behar duela, aldarrikapenei eutsiz eta jarduketaren-eremua handitzen saiatuz.

Parte-hartzaile askok Lokarri animatu dute itxaropena eta ilusioa sortzen jarraitzea, jarrera positibo eta irekiari eustera, bai eta “bake eta errealismo giro” bati eustera ere, ematen diren aurrerapausoen alde egitera eta “elkarren kontrako jarrerak leuntzeko oliboa izatera”.

Hona hemen funtsean proposamenei zer puntu azpimarratzen dituzten:

### 1) Informatzea

Parte-hartzaileen erantzunen arabera, Lokarriko egoeraren inguruko analisiak egiten eta hedatzen jarraitu beharko luke, bai eta proposamen positiboak egiten ere. Ekarpenei askok nabarmendu dute lan hau Estatuan eta nazioartean era trinkoago batez egiteko garrantzia.

### 2) Zuzenean inplikaturiko eragileak premiatzea

a) eskubide urraketak salatzea

Ekarpenei bat datoz azpimarratzerakoan behin eta berriz exijitu behar zaiola ETARI indarkeria uzteko eta, Gobernuari, eskubiderik ez urratzeko.

b) elkarrizketa sustatzea

Parte-hartzaileek elkarrizketaren aldeko ahalegina eskatu diote Lokarriari, inor bazter utzi gabe alderdi politiko guztiak lotzen saiatzeko eta elkarrizketa sustatzea bideratutako lanabesak bilatzeko. Proposamen batzuek zubi-lana, eragile-lana, edo adiskidetze eta bitartekaritza lana egiteko eskatu diote Lokarriari. Era berean, Lokarriari eskatu zaio lan egin dezala nazioarteko eragileak inplikatzeko, prozesua sendotze aldera.

### 3) Gizartea mobilizatzea

Erantzun askok Lokarriren gizarte-sarearen izaera azpimarratu dute; beraz, nabarmendu dute Lokarriko gizartearen mobilizazioa eragiteko bete behar duen eginkizuna, herritarrek parte hartzeko eta aldarrikatzeko bideak eskainita (inkestak, manifestazioak, topaguneak, etab.).

Era berean, beste erakunde batzuekin ahaleginak batu beharra baloratu da, eta berme anitzak lortu beharra, elkarrekin lan egiteko.

## 10. Uste duzu ETAREN bigarren adierazpenak, zeinetan Bruselako Adierazpenaren sinatzaileekin urrats berriak aztertzeko prest agertu den erakunde armatua, berrikuntzaren bat ekarri duela? \*

Hamar erantzunetatik bederatzik baietz esan dute. Horietatik, % 60k uste du aurrerapauso bat dela bake-prozesu baterako bidean, baina ETAK su-eten iraunkor eta erabat egiaztagarria iragarri behar duela, Bruselako Adierazpenean jasotakoari erantzunez. Erantzunen % 30ek diote aukera garrantzitsu bat zabaldu duela su-eten baten itzulezintasuna lortzeko, zeina baldintza ezinbestekoa baita bake-prozesu bat bideragarri izan dadin.

Aitzitik, erantzunen % 8k uste du bai aurreko komunikatua bai azkenekoa ez direla nahikoa eta ezinbestekoa dela ETAK indarkeria uztea. Gainerakoek (% 2k) ez daki edo ez du erantzuten.

\* Galdera hau galdetegian sartu genuen, ETAK irailaren 19ko data duen komunikatua eman ondotik

# Egindako ekarpen batzuk

Zerbait mugitu da eta atzera egiteak gero eta kostu handiagoa dauka

---

Ezker Abertzaleak aurrea hartu duelako

---

Ibili bitartean aurrera egiten dugu

---

Aldatu egin dira paperak eta egiturak, merezi du jarraitzea

---

Bakea ez da ideia politikoa, gizartearen beharra da

---

Ez fidatzeko esaten dit buruak, baina aukera hau behin betikoa izan daitekeela esaten dit bihotzak

---

Pausu bat eman da, batzuentzat txikia bada ere. Ezer baino gehiago bada!

---

Atzera bueltarik ez duen egoera berri bat sortzen ari da

---

Bakea lehenengo helburua izan behar du beti

---

Abagune politikotik landa, beharrezkoa da baikorrak izatea

---

Bada aukera historiko bat, hainbat berrikuntza adierazgarri dituena

---

# Bakeranzko prozesuaren egoeraren azterketa

Bake Prozesuaren Behatoki Sozialaren Txosten hau 2010eko udari dagokio. Txostena egiteko galdetegiari emandako erantzunetatik ondorioztatzen da jende gehiena itxaropentsu dagoela baina aldi berean oso zuhurra dela; eta, hein txikiagoan bada ere, oraindik ere ezabatu ez diren mesfidantza batzuk badaudela.

Behin erantzunak aztertu ondoren, ikusi dugu herritarren artean zabaltzen jarraitzen duela bakea lortzeko eta bizikidetzaren hobetzeko aukerak; gora ari dela, alegia. Txosten honek dakartzan datuak eta duela urtebetekoak alderatuz gero (hura oso abagune zaila izan baitzen), pertzepzioak 180 graduko iraulia izan du. Pertzepzioaren oinarrian ideia hauek daude:

1- Uda honetako gertakarien ondotik, bakeranzko prozesuaren egoerari batez beste 6,1eko balorazioa eman zaio.

2- Finkatzen ari da aprobetxatu beharreko aro berri bat zabaldu dela eta bake-prozesu berri baterako baldintzak betetzen hasi direla uste dutenen iritzia. Irudipen horri eusten dioten elementu nagusiak hauek dira: Ezker Abertzaleak hurrenez hurren emandako pausoak, soilik bide politiko eta demokratikoen aldeko apustua finkatzeko; atentaturik ez izatea; Bruselako Adierazpenaren bidez etorri den nazioarteko euskarria, eta desberdinen arteko lankidetzaren esparru berriak finkatu izana.

3- Gainera, Galdetegiari erantzundako lau lagunetatik hiruk on iritzi diote ETAk joan den irailaren 5ean emandako komunikatuari (eraso ekintza armaturik ez egiteko erabakia jakinarazi zuen komunikatuari), horrek Ezker Abertzalearen estrategia sendotzen duelako eta, era berean, une batez indarkeriaren oztopoa ezabatzen duelako.

4- Gobernuak irailak 5eko komunikatuaren aurrean eman beharko lituzkeen pausoei dagokienez, gehienek uste dute, zuhurtasunez bada ere, alderdi politiko guztiekin hitz egiten hasi beharko lukeela agertoki berri bat baloratzeko, bai eta keinu batzuk egin ere; esaterako, Ezker Abertzalea legeztatzea eta presoak hurbiltzea.

5- Nahiz eta gehienek uste duten bakera eta bizikidetzaren hobea lortzera gehiago hurbiltzen gaituen aukeren garaia finkatzen ari dela, zuhurtasun handia ere ikusten da eta mesfidantza pixka bat ere bai; horiek oro argituko dira, pausoak behin betikoak egiten diren heinean, eta Gobernuak eta elkarrizketarik batere nahi ez duten alderdi politikoek elkarrizketari bideak irekitzen dizkioten neurrian.

Horrenbestez, oroz gain, bi deialdi azpimarratzen dira bake-prozesu berri bat bideragarri egiteko baldintzak sortzen laguntzeko:

- ETAk komunikatu baten bidez su-eten aldebakarreko, iraunkor eta erabat egiaztagarria aldarrikatzea, Bruselako Adierazpenean eskatzen den bezalaxe.

- Gobernuak elkarrizketa klaseren bat irekitzea alderdi politikoaren artean, eta elkarrizketarik nahi ez duten alderdi politikoek jarreraz aldatzea.

Azkenik, zuhurtasunak zuhurtasun, inkestari erantzundako lagun gehienek beren ekarpena egiten jarraitzeko borondatea agertu dute, bizikidetzaren baketsua lortzeko bidean.

# Lokarriren gomendio eta konpromisoak bake prozesu berri bat bultzatzeko

Galdetegiari emandako erantzunak aztertetik ondorioztatzen den bezalaxe, ondoko iritzi hau finkatu da: hots, gaur egun aukera gehiago dago duela urtebete baino bakea lortzeko, eta aurrerapausoak ematen hasi dira bake-prozesu berri bat irekitzeko baldintzak lortze aldera. Uztailaren 21ean aurkeztutako Behatoki Sozialaren Txostenean jasota dauden gomendioetatik (2010eko udaberriari dagokiona), haietako bati hein batean erantzun zaio. Zehazki, ETARI zuzendutako deia da, Bruselako Adierazpenean jasotako su-eten iraunkor eta egiaztagarria aldarrikatzeko eskaerari positiboki erantzuteko.

Galdetegiari emandako erantzunak kontuan hartuta eta, behin bakeranzko egoera aztertutakoan, Lokarrik jarduketa hauek gomendatu nahi ditu, bakeranzko aurrerapausoak emateko baldintzak sortze aldera eta bizikidetza hobetzeko prozesu bat irekitze aldera.

## 1-ETAREN su-eten adierazpena, aldebakarrekoa, iraunkorra eta egiaztagarria

Aurreko txostenean, Lokarrik azpimarratu zuen oso garrantzitsua zela su-etenaren Adierazpena lehenbailehen egitea. Data bat jartzera ere ausartu zen; irailaren 30a baino lehen, hain zuzen. Lokarriren iritziak, atzerapen batek arriskuan jar zitzakeen aukera-garai berriak eragindako konfiantza eta ilusioak, bai eta Ezker Abertzalearen estrategia oztopatu ere.

ETAk bi komunikatu egin ditu irailean: Lokarriren iritziak, bi komunikatuak aurrerapausoak eta garrantzitsuak dira, eta potentzialtasuna dute; aurrerapauso bat, atzerakorik ez duen bakeranzko bidea sustatzen laguntzeko. Dena den, eta alderdi politiko eta herritar batzuetan oraindik ere ageri diren mesfidantzak eta errezeloak gainditzeko, hiru elementu argitu beharko lirateke: Uko egiten al dio ETAk indarra erabiltzeari edota indarra erabiltzearekin mehatxatzeari, Mitchell printzipioek ezarritakoarekin bat eginda? Bere egiten al du prozesuaren bermea euskal gizartearen datzala? Erabaki hori aldebakarrekoa da edo Gobernuaren ordainei lotuta dago?

Objetiboki, eta gizartearen puska batean eta eragile politiko batzuen artean sortu den itzaropena gorabehera, ETAk hein batean baino ez dio erantzun Bruselako Adierazpenean jasotako eskaerari; eskariak, beraz, indarrean dirau.

Horrenbestez, Lokarrik eutsi egingo dio ETARI su-eten aldebakarra, iraunkorra eta erabat egiaztagarria ematea eskatzen dion gizarte aldarrikapenari. Horrela bakarrik egiaztatuko da prozesua itzulerarik gabekoa ote den, eta hori beharrezko baldintza da bake-prozesu berri bideragarri bat abiarazteko.

## 2. Gobernuak gauzak erraztu eta gidari izan behar dute

Aukera berrien agertokian gaude, eta Gobernuak ezin dute hartatik bazter egon. Aukera berriek estrategia zaharrak aldatzea eskatzen dute, gauzak erraztea, eta ez oztopatzea. Gobernuak erantzukizunez jokatu eta aukerak baliatu behar dituzte, etorkizunari begiratu, eta era berean, pentsatu behar dute nola lagundu inor mehatxatua edo kanporatua ez sentitzeko moduko bizikidetza bat eraikitzen laguntzeko.

Lokarriren ustez, Gobernuek bi ekarpen egin ditzakete aukera-garai honetan:

- behar adina pauso ematea Batasuna legeztatzea errazteko. Hori lagungarria litzateke, indar politiko guztiek baldintza berdinetan, gardentasunez eta era publikoan konponbideen prozesu batean parte hartu ahal izan dezaten.
- gobernuek ekimena bere egin eta indar politiko guztiekin hitz egiten hasi beharko lukete, inor bazterrean utzi gabe, alderdi politikoen arteko akordio-prozesu baten baldintzak, oinarriak, edukiak eta agenda ezartzeko.

### 3. Lokarriren konpromisoa

Herritarren sare bat den heinean, Lokarrik gogoratu nahi du helburu batek bultzatzen duela bere lana: hots, bakean oinarrituriko eta inor bazter utzi gabeko bizikidetzeta bat lortzen laguntzeak, gizarte hau osatzen dugun pertsona guztiek tokia izan dezaten. Hori dela eta, Lokarrik aniztasuna aldarrikatzen du, bai eta elkarrekiko errespetua ere, gure bizikidetzaren oinarria baita. Ildo horrekin bat, Lokarrik konpromiso hauek hartzen ditu:

- Funtsezko eskubide eta askatasun demokratiko guztiak behar bezala bermatu behar direla aldarrikatzen jarraitzea.
- Konfiantzak sortzen eta eraikitzen laguntzea, jarrera desberdinen artean elkarriketa anitzeko guneak sortze aldera.
- Gizarte mugiaraztea, indarkeriak atzerabiderik ez duela eta Batasuna legeztatu beharra aldarrikatzeko, beharrezko elementuak edo baldintzak baitira bake-prozesu bideragarri bat abiarazteko.

### Erronka bat

Zabaltzen hasi den aukera-eszenatokiaren aurrean, iraganeko akatsetatik ikasteko beharra eta oinarri sendo batzuk finkatzearen garrantzia azpimarratu nahi ditu Lokarrik bakea lortzeko. Bake prozesu berri batek atzerabueltarik ez izaten lagunduko duen herritarren segurtasun sare bat ehuntzea da orain erronka.